BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3823

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 30ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko balorazio batzordeko batzarkideak izendatzen dituena eta batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusirik Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko ekainaren 17ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko araudia ezartzen duena.

Kontuan izanda 2015eko ekainaren 17ko Aginduaren 11. artikuluak aipaturiko diru-laguntzak emateko balorazio batzorde bat osatuko dela eta batzorde horretako batzarkideak izendatzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez emango dela.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko osatuko den balorazio batzordearen batzarkideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea. Beraz, batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Clara Montero Tellechea anderea, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Batzarkideak:

– Ana López Asensio anderea.

– Iker Tolosa Lafuente jauna.

Idazkaria: Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko teknikaria.

Bigarrena.– Honako Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 30a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.